



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2024-ko Abendua

**ANTIBIOTIKOAK ZUHURTZIAZ ERABILTZEKO EUROPAKO EGUNA: PRANaren
ERRONKAK ETA LORPENAK AZKENEKO 10 URTEETAN**

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

GABAPENTINOIDEAK: ALDAKA HAUSTEKO ARRISKUA

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA

- Fezolinetant (Veoza): gibleko kaltea prebenitzeko gomendio berriak

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPS: GIZA ERABILERAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINAK

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

DISPENTSAZIO FARMAZEUTIKOKO VPM ATLASA

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- i-botika: Bitamina eta mineral osagarriak hartzen dituzu?
- INFAC buletina: "Lunbalgia"
- EAEko Farmakozaintzako Buletin berria
- SEFAPen infografia berriak
- 2025ean saihestu beharreko medikamentuen zerrenda (Revue Prescrire)
- Ebidentzian Oinarritutako Medikuntzako e-booka

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

BERRITASUNAK FORMULAZIO MAGISTRALEAN

- Kromoglikato sodio 40 mg/g emulsio o/a 100 g: BISATUA kendu da.

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

BERRITASUNAK e-REZETA SISTEMAN

- Urovaccine eta Neovaccine autotxertoak gehitu dira e-Rezeta sisteman

8

[Jarraitu irakurtzen](#)

PRESBIDE ETA ERIZAINTZAKO MARKA LUZAGARRIA

9

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

10

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

ANTIBIOTIKOAK ZUHURTZIAZ ERABILTZEKO EUROPAKO EGUNA: PRANaren ERRONKAK ETA LORPENAK AZKENEKO 10 URTEETAN

PRANaren ([Antibiotikoekiko Erresistentziari aurre egiteko Plan Nazionalea](#)) lehen hamarkadan, antibiotikoen kontsumoa % 13,5 murriztu da giza osasunean eta % 69,5 animalien osasunean.

Ekitaldian, besteak beste, antibiotikoekiko erresistentziaren arazoa eta [One Health](#) ikuspegia jorratu dira, pertsonen, animalien eta ekosistemen osasuna optimizatzeko arlo horiek elkartuz, bereizita tratatu beharrean.

Informazio gehiago [esteka](#) honetan.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

GABAPENTINOIDEAK: ALDAKA HAUSTEKO ARRISKUA

JAMA network aldizkarian gabapentinoideei eta aldaka hausteko arriskuari buruzko kontrol-denbora-kasu azterlan bat argitaratu da. Azterlana 2013ko martxotik 2018ko ekainera bitartean aldakako hausturagatik ospitaleratutako eta aurrez gutxienez gabapentinoide dispentsazio bat izan zuten 50 urtetik gorako 28.293 pazientetan egin zen, eta agerian utzi zuen gabapentinoideak (pregabalina edo gabapentina) erabiltzea haustura-arrisku handiago batekin lotzen dela, eta arriskua handiagoa dela paziente zaurgarrietan eta giltzurrun-gaixotasun kronikoa dutenetan.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [esteka](#) hau.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA

Fezolinetant (Veoza): gibleko kaltea prebenitzeko gomendio berriak

AEMPSek segurtasun-ohar berri bat argitaratu du 2024ko abenduaren 2an. Bertan adierazten denez, fezolinetant bidezko gibleko kalteen kasuak jakinarazi dira, menopausiarekin lotutako gaueko beroaldiak eta izerdi moderatuak eta larriak tratatzeko ematen den medikamentua.

Eskura dagoen ebidentzia guztia berrikusi ondoren, PRACek gibleko funtzioa kontrolatzeko gomendio berriak ezarri ditu.

Informazio gehiago honako [esteka](#) honetan.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4

AEMPS: GIZA ERABILERAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINAK

AEMPSen 2024ko azaroaren 8ko eta 26ko giza erabilerako medikamentuen segurtasunari buruzko hileko buletinetan, farmakozaintzako datuen aldizkako ebaluaziotik eratorritako honako informazio hau nabarmendu daiteke:

Medroxiprogesterona azetatoa: meningioma kasuak jakinarazi dira denbora luzez erabili ondoren (zenbait urte). Onkologikoak ez diren indikazioei dagokienez, paziente bati meningioma diagnostikatzen bazaio, tratamendua eten arreta-neurri gisa. Onkologiako indikazioei dagokienez, tratamenduarekin jarraitzeko beharra indibidualki baloratu.

Meningioma gaineratu da maiztasun ezezaguneko ondorio kaltegarri gisa.

Alopurinola: elkarreraginak 6-merkaptopurinarekin eta azatioprinarekin

6-merkaptopurinaren edo azatioprinaren serumeko kontzentrazioak maila toxikoetara irits daitezke alopurinolarekin batera ematen direnean. Horrek heriotza eragin dezaketen panzitopenia eta mielosupresioa sor ditzake. Aldi berean hartu behar badira, dosia ohiko 6-merkaptopurina edo azatioprina dosiaren laurdenera murriztu behar da, eta kontrol hematologikoa sarritan egin. Pazienteei aholkatu hezur-muineko supresioaren zantzu edo sintomen berri emateko, hala nola ageriko kausarik gabeko hematoma edo odoljarioak, eztarriko mina edo sukarra.

Gainera, medikamentuarekiko erreakzio likenoidea gaineratu da maiztasun ezezaguneko ondorio kaltegarri gisa.

Amantadina: pentsamendu eta portaera suiziden kasuak jakinarazi dira tratamenduan zehar. Pazienteak zaindu seinale adierazgarriak detektatzeko, eta tratamendua hasi beharrezkoa denean. Pazienteei eta zaintzaileei aholkatu aholkularitza medikoa eskatzeko pentsamendu edo portaera suiziden zantzuak sortuz gero.

Amiodarona: bihotz-transplantearen osteko mentuaren disfuntzio primarioa

Transplantea jasoko duen pertsonak, bihotzeko transplantea egin aurretik, amiodarona hartzea mentuaren disfuntzio primarioa (DPI) izateko arrisku handiagoarekin lotu da; konplikazio hori hilgarria izan daiteke, baita itzulezina ere. Bihotz-transplantea egiteko itxaron-zerrendan dauden pazienteek arritmiaren aurkako medikamentu alternatibo bat ahalik eta lasterren hartzea kontuan hartu.

Bihotz-transplantearen osteko mentuaren disfuntzio primarioa gaineratu da maiztasun ezezaguneko ondorio kaltegarri gisa.

Amitriptilina: larruazaleko kontrako erreakzio larriak jakinarazi dira, erreakzio farmakologiko eosinofilikoak eta sintoma sistemikoak (DRESS) barne, hilgarriak izan daitezkeenak (erreakzio gehienak 2-6 astetan agertzen dira).

Erreakzio horien adierazgarri diren seinaleak eta sintomak agertzen badira, tratamendua berehala eten, eta ez berrabiarazi inoiz.

DRESS gaineratu da maiztasun ezezaguneko ondorio kaltegarri gisa.

Bribarazetama: hilgarriak izan daitezkeen larruazaleko kontrako erreakzio larriak jakinarazi dira tratamenduarekin lotuta, Stevens-Johnson sindromea barne. Erreakzio horien adierazgarri diren seinaleak eta sintomak agertzen badira, tratamendua berehala eten.

Stevens-Johnson sindromea gaineratu da maiztasun ezezaguneko ondorio kaltegarri gisa.

Dapagliflozina/metformina: dapagliflozina tratamenduarekin hematokritoa handitzen dela ikusi da. Hematokritoa nabarmen igo zaien pazienteak zaindu eta ikertu behar dira, azpian egon daitezkeen gaixotasun hematologikoak detektatzeko.

Makrogola 3350 (ahotik hartzeko): hesteak prestatzeko erabilerarekin lotuta konbultsioak jakinarazi dira, bai konbultsioen aurrekariak dituzten, bai aurrekaririk ez duten pazienteengan, batez ere anomalia elektrolitikoekin lotuta, hala nola hiponatremia larria. Sintoma neurologikoak egonez gero, likidoen eta elektrolitoen anomaliak zuzendu.

Hesteak prestatzeko hartu ondoren esofago-hausturako kasuak ere jakinarazi dira (Boerhaave sindromea), oka gehiegi egitearekin lotuta, batez ere adineko pazienteetan. Pazienteei aholkatu medikamentua hartzetik uzteko eta berehalako

arreta medikoa bilatzeko, baldin eta gelditu ezineko gorakoak badituzte eta, ondoren, mina badute bularrean, lepoan eta abdomenean, eta disfagia, hematemesia edo disnea badituzte.

Konbultsioak eta esofago-haustura (Borheaave sindromea) gaineratu dira maiztasun ezezaguneko ondorio kaltegarri gisa.

Mesalazina: garezur barneko hipertentsio idiopatikoa jakinarazi da (garuneko pseudotumorea). Pazienteei seinaleen eta sintomen berri eman (besteak beste, buruko min handia edo errepikakorra, ikusmen-alterazioak edo akufenoak), eta, agertuz gero, tratamendua eteteko aukera aztertu.

Garezur barneko hipertentsio idiopatikoa gaineratu da maiztasun ezezaguneko ondorio kaltegarri gisa.

Farmakozaintzako datuak ebaluatu ondoren identifikatutako **beste ondorio kaltegarri batzuk:** besteak beste, **daridorexanta:** hipersentikortasuna (larruazaleko erupzioa eta urtikaria barne), amets anomaloak, amesgaiztoak, sonanbulismoa; **lebonorgestrela/etinilestradiola**, **etinilestradiola:** transaminasa altuak; **liraglutida:** larruazaleko amiloidosia eta **erribastigmina:** pleurotonoak (Pisaren sindromea).

Informazio gehiago nahi izanez gero, AEMPSen hileko segurtasun-buletinak kontsultatu daitezke, 2024ko [azaroaren 8an](#) eta [azaroaren 26an](#) argitaratutakoak.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 DISPENTSazio FARMAZEUTIKOKO VPM ATLASA

Osasun Zientzien Aragoiko Institutuaren mendeko VPM atlasak argitaratu dira, zeinak opioideen eta antibiotikoen dispentsazioa deskribatzen baitituzte 10 autonomia-erkidegotako OSNko Oinarrizko Osasun-Eremuetan (Aragoi, Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon, Errioxa, Nafarroa, Balear Uharteak, Kanariar Uharteak, Katalunia eta Euskadi) 2017tik 2022ra. Atal ezberdinetan, oinarrizko osasun-eremuko adierazleen emaitzak alderatzen dira gizonen eta emakumeen artean, eta maila sozioekonomiko desberdineko biztanleen artean.

Atlas bakoitzarekin batera, metodologia eta adierazleak, emaitza garrantzitsuak biltzen dituen infografia bat eta konparazio-txosten bat daude.

- Analgesiko opioideen dispentsazio anbulatorioko aldaketen atlas <https://cienciadedatosysalud.org/atlas/opioides-2022/>
- Antibiotikoen dispentsazio anbulatorioko aldaketen atlas <https://cienciadedatosysalud.org/atlas/antibioticos-2022/>

Bestalde, [Sendagaien Erabileraren Behatokiak](#) bi txosten berri argitaratu ditu urrian, ospitalez kanpoko esparruan Espainiako OSNaren konturako medikamentuen erabilerari buruzko datuekin:

- [Antihipertentsiboak](#)
- [Antitronbotikoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

i-botika: Bitamina eta mineral osagarriak hartzen dituzu?

Herritarrak informatzeko i-botikako fitxa berri bat argitaratu da, bitamina eta mineral osagarrien beharrari eta segurtasunari buruz.

[Esteka](#) honetan aurki daiteke fitxa.

Argitaratutako [fitxa](#) eta [bideo](#) guztiak Osasun Sailaren webgunean eskura daude, baita zenbait [lotura erabilgarri](#) eta [i-botika hiztegia](#) ere.

INFAC buletina: “Lunbalgia”

Buletin horretan lunbalgia ez-espezifikoa, akutua zein iraunkorra, maneiatzeko interbentzio mota ezberdinen eraginkortasunari buruz eskuragarri dagoen ebidentzia aztertu da.

Dokumentuetarako estekak:

- [Buletina](#)
- [Aurkezpena](#)

EAEko Farmakozaintzako Buletin berria

EAEko Farmakozaintza Unitateak farmakozaintzari buruzko buletin berri bat argitaratu du azaroan.

Aurkibidea		
“One Health” kontzeptua farmakozaintzan sartzen: Ekofarmakozaintza	Sendagaiei buruzko oharra • Metadonarekiko abstinentzia-sindromea metamizolarekin tratamendua hasi ondoren • Disulfirama eta metronidazola batera erabiltzen dituen tratamenduarekin lotutako neuropatia periferikoa	Fitxa teknikoak segurtasun arazoak direla eta eguneratzea. PRACen gomendioak
		Farmakozaintzari buruzko inkesta

Hona hemen buletinerako [esteka](#).

SEFAPen infografia berriak

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) infografia berriak argitaratu ditu 2024ko irailean, urrian eta azaroan, aurkezpen eta pdf interaktiboen formatuetan eskuragarri:

- Zer jakin behar duzu medikazioan aldaketaren bat egiten denean?
[Pdf formatu interaktiboa](#)
[Aurkezpen interaktiboaren formatua](#)
- Hartu txertoa! Irabazi osasunaren babeserako domina
[Pdf formatu interaktiboa](#)
[Aurkezpen interaktiboaren formatua](#)
- Diabetesa: Zergatik esaten diote “hiltzaile isila” eta nola tratatzen da?
[Pdf formatu interaktiboa](#)
[Aurkezpen interaktiboaren formatua](#)

SEFAPen infografia horiek eta beste batzuk [web-orrian](#) ikus daitezke.

2025ean saihestu beharreko medikamentuen zerrenda (Revue Prescrire)

Aurreko urteetan bezala, Frantziako *Revue Prescrire* aldizkariak 2025eko txostena argitaratu du, zeinak jasotzen baitu Frantzia edo Europar Batasunean baimenduta dauden indikazioetan onuraren eta arriskuaren arteko erlazio kaltegarria edukitzeagatik saihestu behar diren medikamentuen azterketa. Informazio gehiago nahi izanez gero, [esteka](#) honetan kontsultatu daiteke txostena.

Ebidentzian Oinarritutako Medikuntzako e-booka

[Lehen Mailako Arretako Ebidentzietan Oinarritutako Pediatria Taldeak \(AEP\)](#) Ebidentzian Oinarritutako Medikuntzako [e-book](#) ireki bat argitaratu berri du, metodologia hori ulertu nahi duten eta aplikatzen ikasi nahi duten guztientzat, pazienteen arazoak konpontzeko erabaki informatuak hartzeko.

Kapitulu guztiek autoebaluazio-galdetegi bat dute amaieran, eta erantzun zuzenak [Autoebaluazio-galdetegiaren erantzunak](#) atalean bildu dira.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7 BERRITASUNAK FORMULAZIO MAGISTRALEAN

Azaroaren 1etik aurrera, 140564 KN-dun Kromoglikato sodio 40 mg/g emulsio o/a 100 g 1 ontziko FM-aren BISATUA kendu da. Finantzaketan sartuta jarraitzen du.

E-Rezetan sartzen diren formula magistralen zerrenda eguneratua eta haien finantzaketa-baldintzak Sailaren webgunean kontsulta daitezke, [esteka](#) honetan klik eginez.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

8 BERRITASUNAK e-REZETA SISTEMAN

Honako AUTOTXERTO hauek gehitu dira e-Rezeta sisteman:

CN 140994	Urovaccine autotxerto bakterianoa tanta bialak B,B
CN 140995	Urovaccine autotxerto bakterianoa tanta bialak B,B,B
CN 140996	Neovaccine autotxerto bakterianoa tanta bialak A,B
CN 140997	Neovaccine autotxerto bakterianoa tanta bialak B,B
CN 140998	Neovaccine autotxerto bakterianoa tanta bialak B,B,B

Aurkezpen horiek [bisatua](#) behar dute finantzatzeko. Presbiden preskribatzeko bilaketa Produktu mota atalean Formula magistralak hautatuz egiten da. Autotxertoaren preskripzio elektronikoaz gain, taloitegi-orria beteta eman behar zaio pazienteari, bai eta laginerako zorroa ere, farmazian eman ahal izan ditzan eskatzeko orduan.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

9 PRESBIDE ETA ERIZAINZAKO MARKA LUZAGARRIA

Azaroan, hainbat hobekuntza txertatu dira Presbiden; besteak beste, erizaintzarekin lotutako zutabe berri bat. Gaur egun, sinbolo baten bidez markatzen dira erizainek luza ditzaketen medikamentuak emateko preskripzioak/aginduak (erizainek modu autonomoan agindu ditzaketelako):



Adibidez:

☐	Estado	Adi	Rev/Fin	Tipo	Ami	Enf	Producto o conjunto DOE	DOE	Principios Activo	Dosis por toma	Pauta habitual
☐			23/01/2025	C			Absorbente Incontinencia Pants N°			1 ABSORBENTE	8 horas

Gogoratu Presbiden txertatutako hobekuntzak Intranet korporatiboaren [esteka](#) honen bidez kontsulta daitezkeela.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

10

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIARIk garrantzitsuenak:

- Actiq® 1.600 mcg, zupatzeko 15 konp. (fentaniloa)
- Dalingo® 82,5 mg, askapen luzeko 30 konp. (pregabalina)
- Equasym® 20, 30 eta 50 mg, askapen luzeko 30 kap. (%30-%70), Medikinet® 5 eta 50 mg, askapen luzeko 30 kap. (%50-%50) (metilfenidatoa)
- Methofill®, Metoject® 27,5 mg/0,55 ml, 1 eta 4 xiringa (metotrexatoa)
- Micetal® 10 mg/g, 30 eta 60 g-ko krema (flutrimazola)
- Rasilez 150 mg filmaz estalitako 28 konp. (aliskirenoa)
- Strattera® 4 mg/ml, aho bidezko soluzioa 100 ml-ko 3 ontzi (atomoxetina)
- Tavulus® 18 mcg inhalaziorako hautsa, 30 kap. + inhalagailua (tiotropio bromuroa)
- Tovedesco® 3,5 mg, askapen luzeko 28 konp. (desfesoterodina)
- Tranalex 50 mg filmaz estalitako 28 konp. (naltrexona)
- Virgan® 1,5 mg/g, gel oftalmikoa (ganziklovirra)

Metilfenidato askapen luzeko konprimatuen hornidura-gabezia

AEMPS-ek, metilfenidato printzipio aktiboa duten askapen luzeko medikamentu-aurkezpenen hornidura arazoan aurrean, [preskripzio-gomendioak](#) argitaratu ditu 2024 azaroaren 28an:

Osasun profesionalei tratamendu berriak eskuragarri dauden metilfenidato aurkezpenekin hasia gomendatzen zaie (berehalako askapeneko konprimatuak edo askapen eraldatuko kapsulak). Tratamendu-aldaketa baloratzea gomendatzen da, ahal dela Lehen Mailako Arretako kontsultatik, ospitaleko espezialistaren kontsultara itxaron beharrik gabe, eskuragarri dauden metilfenidato aurkezpenetara, gaur gaurkoz hornidura-gabeziak eragiten dien aurkezpenekin tratamenduan dauden pazienteen kasuan (askapen luzeko konprimatuak).

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Aldactacine® 25 mg/15 mg, 40 konp. (espironolaktona/altizida)
- Amoxicilina/Ácido Clavulánico Viatris® (Mylan) 250 mg/5 ml + 62,5 mg/5 ml, aho bidezko suspentsiorako hautsa 120 ml-ko ontzia (amoxizilina/azido klavulanikoa)
- Arteoptic® 2%, 3 ml-ko kolirioa (karteolola)
- Aspifox® 20 mg/100 mg, 30 kap. (rosuvastatina/azido azetilsalizilikoa)

- Clotrimazol Gine-Canesmed® 500 mg, konp. baginal 1 (klotrimazola)
- Enanplus® 75 mg/25 mg, soluzio granulatua 20 zorro (tramadola/dexketoprofenoa)
- Estradot® 37,5 mcg/24 ordu, 8 adabaki transdermiko 0,585 mg (estradiola)
- Eulitop® 200 mg, 60 konp. (bezafibratoa)
- Ferplex® 40 mg, 15 ml-ko 20 bial edangarri (burdin proteinsukzinilatoa)
- Higrotona® 50 mg, 30 konp. (klortalidona)
- Parlodel® 2,5 mg, 50 kap. (bromokriptina)
- Rimactan® 300 mg, 60 kap. (rifanpizina)
- Septrin Pediátrico® 40 mg/ml + 8 mg/ml, aho bidezko suspentsioa 100 ml (sulfametoxazola/trimetoprima)
- Trulicity® 1,5 mg, aurrez kargatutako 4 luma (dulaglutida)
- Urbason®, Metilprednisolona Normon® 20 mg, soluzio injehtagarriko hauts anpoila 1 + disolbatzaile anpoila 1 (metilprednisolona)

PRESBIDEn “Hornidura ezak” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornikuntza-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- PRESBIDE; [Medikamentuan hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPS; [Hornidura-arazoak dituzten medikamentuen zerrendarako sarbidea](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da. FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez.